



astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

11.zk 2017 • 5e



Agurrik gabeak

Muertos y olvidados

Felipe Agirre Leuzdirika, Tomas Añurragerra,
Bergaretxe, Felix Alvarez Nunez, Santiago Andres
Amuategi, Ezaquiel Arabiotorre Olalde, Angel
Aragon Martinez, Mariusel Arana Murgelbokoña,
Aranzibia, Damian Artzabertena Urtan, Arasaaso,
Arnaiz Martin, Faustino Arriola Txintxuruta,
Florencio Arroita Zarandona, Victor Arroita
Zarandona, Eduardo Arza Inzagaran, Felix
Azkorbebeitia Ereñaga, Antonio Barrera, Nicolas
Barraña Elizegi, Antonio Barrio (de) Maestro, Pedro
Bilbao Iñarra, Eliseo Cautó Barreiro, Octavio Conde
Cambero, Jose Diaz Fernandez, Victorio Diaz
Tamayo, Pedro Etxeña Idiaketz, Joaquin Elizegi
Iraola, Ramon Elizegi Iraola, Jose Ellakurte Perez,
Gregorio Elortiaga Otegado, Jose Luis Etorriaga
Gorroño, Angel Elosegi Bilbao, Juan Eskubi Urteaga,
Victorio Etxaburu Ibañi, Federico Etxezahar Garro,
Jose Maria Fernandez Etxaburu, Juan Fernandez
Gorroño, Esteban Galdona Irigoyen, Donato Galdos
Lezea, Felix Gallastegi Belar, Jose Gandiaga
Maortua, Genadio Garcia Redin, Bautista Garcia
Hernandez, Eduardo Gerra Ezeño, Francisco
Golzarri Llona, Jose Maria Grandea Urtarte, Antonio
Ibarra Aranzeta, Juan Ibarra Aranzeta, Jose Luis
Ibarra Urteaga, Rafael Ibarroño, Pedro Idiaketz
Egaña, Imaz, Jose Irastorza Santa Cruz, Adolfo
Iturraspe Intxausti, Luciano Iturrieta Mendizabal,
Pablo Juaristi Onandia, Gregorio Larrañaga
Txapartegi, Felipe Longarte Ajuria, Angel Lucas
Lopategi, Juan Zacarias Mañarikua Ziarsolo,
Prudencio Martinez Amilburu, Aquilino Jose
Martinez Cayon, Nicolas Mendiolagarai Bilbao, Jose
Maria Mitxelena Genbelzu, Jose Mugaiza Mugaiza,
Ignacio Odiaga Maortua, Valentin Odirozola Ogara,
Andres Oñartzabal Alda, Jeronimo Oñartzabal, Juan
Tomas Ortuondo Zimara,

Ikobaltzeta, Bruno E.

Barcena, P.

Aurelio R.

Generoso


Raimundo U.


Urtamuno, An.

Zaldua, Gregorio

Ukatutako iragana
berreskuratzen

MEMORIA

 Iban Gorriti - Jon Irazabal

 Txelu Angoitia

Memoria historikoa lantzen duten
Durangaldeko taldeak



 Durango 1936 Kultur Elkarteko ekitaldia Landakon 2008an.

“Ukatutako memoria”

Transizio garaiko itunak bestelako “akordio” batzuk ekarri zituen, 1936. urtetik Francisco Franco diktadorea hil zen arteko gertaerak berriki ahal izateko: gutxiengo batek ukatu zuen egoera eta gertatutakoa berreskuratzeko lanean hasia. Lan konplexua izan zen dokumentazio falta handia zegoelako: asko galdua, eta gordeta zegoena esku pribatuetan, ezezagunetan edota eskuratzeko zaildu egiten zuten egoeran. Estatuko administrazio ezberdinen eskuetan gordetzen zen dokumentazioari dagokionez, Francoren heriotzaren ostean, garbiketa handia egin zela uste da. Deuseztatu egin ez zena, berriz, 40 urte luzetan historia ofiziala

kontatu zutenen zaintzapean geratu zen eta sistematikoki zaildu egiten zuten hura berrikustea.

Erdi klandestinitatean, beraz, hasi zen memoria berreskuratzeko zeregina. Kasu askotan, 1979eko udal hauteskundeetan eratu ziren udal berrieta-ko udalbatzen laguntza egon zen. Lehengoratzeko honetan Otxandio izan zen aintzindarietako bat. 1978. urtean omenaldia antolatu zuten 1936eko uztailaren 22an izan zen bonbardaketan hil zirenak gogoratzeko. Ekitaldian, Andikona plazan oroigarri modura plaka bat ipini zuten. Omenaldia urtero egiten da orain, uztailaren 22 osteko igandean.



📷 Nestor Basterretxearen eskulturaren inaugurazioa Otxandion 2011. urtean.

Memoria Historikoa berreskuratzea Gerediaga Elkarteak azken hamarkadetan egin duen lanen artean erreferentziazkoa izan da. Abiapuntu modura bi ekimen aipatu daitezke: batetik, 1984. urteko martxoaren 31n Manuel Tuñon de Larak Durangoko bonbardaketaz emandako hitzaldia, eta bigarren, 1987. urtean, bonbardaketaren 50. urteurrenean antolatu zen erakusketa. Gure historiako gertaera garrantzitsuari buruz zegoen ezjakintasunaz jabetuta Gerediagak gaiaren gaineko ikerketa hasi zuen Durangoko Udalaren laguntzarekin. Inguruko artxiboetan dokumentazio bila ibiltzeaz gain, Madril, Erroma eta Londreseko artxibo ezberdinak ere arakatu ziren. Ikerketen gaineko lehen emaitza 1990. urtean zabaldu zen. Besteak beste, Jesus Mari Arruabarrenak bonbardaketari buruz egin zuen dokumentala estreinatu zen eta urte batzuk beranduago Pablo Garitaonandiak gaurkotu egin zuen.

XXI. mendean berpiztu eta ugaritu dira memoria berreskuratzekeo lanak. Administrazio ezberdinen laguntzarekin batera, komunikabideen arreta jasoz ohiartzuna lortu dute. Belaunaldi berriek ere gertatutakoa jakiteko erakusten duten jakinminak eragin dute berpiztea.



📷 Nestor Basterretxearen eskultura.

2001. urtean Kriskitin dantza taldearekin eta Berbaro Elkartearekin batera 1937ko martxoaren 31n Durangon izan zen bonbardaketetan hildakoei omenaldia antolatu zuen Gerediagak, eta harrezkero, urtero antolatu da. Biktima horiek, Sabino Arana Fundazioaren eta Gerediaga Elkartearen eskariz, 2005. urtetik Andra Mariko elizpean oroi-garria dute.

Martxoaren 31ko dataren inguruan antolatu izan diren ekintza ezberdinetan pasarte eta kolektibo asko gogoratu dira: Durangoko emakumeen kartzelan preso egondako emakumeak, 1937. urtean segurtasun kontuengatik ebakuatu zituzten gerrako umeak, errepresioa jasan zuten abadeak eta abar.



 Gerra zibilaren 70. urteurrena Otxandion.

 Durangoko bonbardaketari buruzko Karrika antzerki taldearen emanaldia 2012. urtean.



Gerediagak ez ditu memoria berreskuratzeko lanak Durangora mugatu. Erakusketak, hitzaldiak, omenaldiak eta bestelako ekimenak Otxandio, Elorrio, Berriz, Mañaria eta Garain gertatutakoak gogoratzeko balio izan dute. Orduko gertaeretan zeresana izan zuten pertsonak ere gogoratu dira. 2005ean,

Berrizko udalarekin batera, frankistek fusilatutako berriztarrek gogoratzeko ekitaldia egin zen; bereziki Felipe Urtiaga alkatea, 1937an fusilatua. 2008. urtean, Elorrrion, Juan Izurategiri egin zitzaion omenaldia. Elorrioko parrokoa izan zen eta 1938. urtean Dueñaseko kartzelan hil zen.

2001. urtean Kriskitin dantza taldearekin eta Berbaro Elkartearekin batera 1937ko martxoaren 31n Durangon izan zen bonbardaketetan hildakoei omenaldia antolatu zuen Gerediaga Elkarteak eta harrezkero, urtero antolatu da.

 Juan Izurategiri omenaldia Elorrrion 2008. urtean.





 Durangoko bonbardaketari buruz, Juanan Hernandezek egindako dokumentalaren grabaketa. 2007.


Erakusketak ere hainbat izan dira: Otxandion 2006an eta 2016an, Durangon 2007an eta 2015ean, Elorrión 2009an, Mañarian 2012an eta Garain 2017an. Merindadeko herri gehienetan gerra zibilari buruzko hitzaldiak, mahainguruak eta ikus-entzunezko emanaldiak ere antolatu izan

dira. 1936 eta 1937 urte beltzetan gertatutakoa eta osteko urteetako historia, ukatutako memoria hori berreskuratu eta ezagutzera emateko helburuarekin antolatu dira guztiak. Argitalpenak ere horren adibide dira. Bi dira azpimarratzeko liburuak. 2001ean argitaratu zen lehenengoa. Jon Irazabalek Durangoko bonbardaketei buruz bi hamarkada luzetan egindako ikerketen emaitzak "Durango: 1937 Martxoak 31" liburuan bildu zituen. 2012an, berriz, "Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937" liburua argitaratu zuen Gerediaga Elkarteak.



 Erakusketa Berrizen. 2008.

Zabalkunde lan horretan Gerediagak ikerketak ere sustatu ditu. 2005ean, Norberto Ibañez eta Jose Antonio Perezek Berrizko gerra eta gerraosteari buruzko azterketa egin zuten. Gertatu zena gogoratzeak eta jakiteak kontzientzian eragin eta berriro antzekorik ez dela gertatuko sinetsita antolatu izan dira guztiak. Helburu berdina du, gerra zibilari lotu-



 Elena Solatxi eta Txelu Angoitiaren erakusketa Santa Susanan, Durangoko bonbardaketaren 75. urteurrenean. 2011.

ta Durangoko leku esanguratsuetan zehar diseinatu den “Aztarnak” ibilbide historiko-turistikoak.

Gizarteratzeko urratsak ematen

Azken urteetan memoria berreskuratuz ugaritu diren ikerketek eta ekimenek Durangaldeko hainbat herritan lantalde bereziak sortzea ekarri du.

Hamarkada luzetan otxandioarrek egindako ekimenetik “Andikona Elkarte” sortu zen eta Andikona plazan urtero egiten den omenaldia antolatzen jarraitu dute. 2011. urtean ere Nestor Basterretxeak egindako “Heriotza zerutik etorri jakun” eskultura jarri zuten. Eta urte berean, Eusko Ikaskuntzak “Gerra Zibila Otxandion” lana argitaratu zuen. Otxandioko Udalak eta Andikona Elkarteak sustatuta Zigor Olabarria Oleagak idatzi zuen liburua. Durangon egin zen antzera, Otxandiok ere, gerra

zibilak herrian eragindakoak ezagutzera emateko aztarnen ibilbidea diseinatu du.

Zaldibarren 1993an hasi ziren “Castet Eguna” antolatzen. Apirilaren 25ean Santamañazarren borrokaldia izan zen eta Iñaki Castet Eusko Gudarosteko Avellanedako batailoiko komandantea hil zen. Memoria berreskuratzekeo Zaldibarko elkarteak bera gogoratuz dauka izena – Castet Elkarte – eta Santamañazarreko borrokaldian askatasuna defendatzen eta errepublikaren alde borrokatu zutenak gogoratzeko urtero ekitaldia antolatzen dute. Azken urteetan bertako lubakiak garbitzen egin dute lan. 2016. urtean, berriz, Zaldibarko Udalarekin batera, Gernikako Arbola plazan gerra zibilean hildako 28 herritarren izenak jasotzen dituen monolitoa ipini zuten. Aurten, “Euskal Herriaren eta askatasunaren alde borrokan eroritakoei” urteroko omenaldia monolito aurrean egin da.

Berrizen, gerra zibilean eta gerra ostean gertatutakoak jakiteko asmoarekin 2007an “Berriz 1936 gogoratzen” taldea eratu zen. Elkarteak, urtero, irailaren 11n omenaldia antolatzen du udalarekin batera Felipe Urtiaga alkate izan zena gogoratzeko eta berekin batera, Jose Agirre, Gregorio Urkijo, Agustin Milikua eta Fermin Aranguren. Frankistek fusilatu zituzten guztiak. Kartzelaratutak eta errepresioa jasan zuten herritarren memoria ere berreskuratu du taldeak. 2016an, esaterako errepresaliatu zituzten maisu-maistrak gogoratu zituzten.

Berrizko taldea eratu zen urte berean, 2007an, “Durango 1936 Kultur Elkarte” lanean hasi zen. Egia, Justizia eta Ordaina eskatzen dute eta gerrak iraun bitartean eta frankismoan Durangon egin ziren gehiegikeriak azaleratzea dute helburu. 2008tik lan handia egin du elkarteak bertatik bertara gerra garaia bizi izan duten herritarren historia batzen. 81 lekukotza jaso dituzte ikus-entzunezko artxibo baliotsuan. Guztiak durango1936.org webgunean ikusi daitezke. 2013an, “Agurrik gabeak” monumentua egitea sustatu zuten. Gerra zibilean eta frankismoan biktima izandakoak gogoratzeko lekua

**Berrizko taldea eratu zen urte berean, 2007an,
“Durango 1936 Kultur Elkarte” lanean hasi zen.**

 Ekitaldia Andra Marin, 2010eko martxoaren 31n.



da Kurutziaga kalean eta urriaren 24an antolatzen dute oroimen ekitaldia. (Juan Eskubi Urtiaga STV buruzagi durangarra fusilatu zuten egun horretan). Zabalkunde lanen artean, bestetik, 2009an Juanjo Lopezek egindako dokumentala argitaratu zuten eta komiki formatuan, 2011. urtean, Elkarrek argitaratu zuen "Udaberri ankerrena" liburuan parte hartu zuten Unai Iturriagak, gidoilari, eta Alex Sanvi, marrazkilari. "Durango 1936 Kultur Elkarteak" *Lau Haizetara frankismoaren kontrako euskal plataformarekin* eta Durangoko Udalarekin batera lanean dihardu Argentinako kereilan.



📷 "Agurrik gabeak" ekitaldia Plateruenean. 2008.

Zaldibarren 1993an hasi ziren "Castet Eguna" antolatzen.

📷 Durangoko bonbardaketari buruzko margoa Andra Marin. 2010.





📷 Memoria historikoa lantzen duten taldeetako ordezkarien bilera 2017an.

Azkenik, azpimarratzekoa da Elorrion memoria historikoz sentsibilitatea duen lagun taldea hasi dela lanean. Aurten, 1937ko martxoaren 31ko data gogoratzeko egitaraua prestatu dute, Durangorekin batera Elorrio ere bonbardatu zutelako italiarrek.

Durangaldean ezezik, Euskal Herriko beste herri askotan familiartekoez sustatuta, herri elkarteek

akuilu lanak eginda hainbat udal ere pausuak ematen hasita dago gertatu zenari argia emateko. Gertatu zena ikertu, ukatua izan den historia azaleratu, izandako injustiziak salatu, belaunaldi berriei isilduarazita egon dena transmititu, eta azken helburu moduan egia, justizia eta ordaina eskatzea dira horretan ari direnen helburua. Baina amankomuneko asmoari elkarlanetik emango zaio erantzun hobea. Herrietan elkarteek, norbanakoez eta udal erakundeek komeni da egiten duten lanari eustea, bakoitzak bere izaera galdu barik. Bakoitzak beretik egin arren badira amankomunean emateko moduko pausuak. Horrek bilatzea, horretan indarrak batzea izan beharko luke hurrengo erronka memoria ezagutu, babestu eta zabaltzeko.



📷 Oroimenaren Bidearen inaugurazio ekitaldia Berrizen 2008an.

Iban Gorriti

KAZETARIA

Jon Irazabal

IKERLARIA

MEMORIAREN KEREILAK

Argentinako kereila

Frankismoaren erantzuleak oraindik ez zigortzea 1977ko Amnistia Legeak bermatu du amaiera-puntuko lege bat izan delako. Amnistia Legeak frankistak edozein erantzukizunetarik salbuetsi ditu. Hala ere, frankismoaren aurka eta oraindik bizirik dauden frankisten aurka auzibidez jotzeko bidea Argentinan zabaldu da.

María Servini de Cubría epaileak, Buenos Aireseko 1. Epaitegiko titularrak, 4591-10 kereilaren bidez zabaldu du bidea. Maria Servinik preskribitzen ez diren genozidioaren eta gizateriaren aurkako krimenei aurre egiteko justizia-printzipio unibertsalean oinarrituta, frankismoaren aurkako prozesua dauka abian eta 1936ko altxamendu militarretik 1977ra bitartekoak jasotzen ditu.

Kereila honi ehunka auzi-jartzaile partikular batu zaizkio; Horrekin batera, hainbat erakunde ere bai, Argentinakoak, Espainiar Estatuakoak eta Euskal Herrikoak. Durangaldean, Berriz, Durango eta Otxandio udalerriak batu zaizkio.

Durangoko kereila

2017ko uztailaren 18an Aitziber Irigoras alkateak "1937ko martxoaren 31"ko batzordearen izenean, Durangok 1937ko martxoaren 31n, apirilaren 2an eta apirilaren 4an jasandako bonbardaketen eta metrailaketen egileen aurkako kereila kriminala aurkeztu zuen Ezkurdi plazako epaitegietan eta Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instruzioko 3. Epaitegiak tramitera onartu zuen bi egunera. Kereila tramitera onar-

tzeak salatutako ekintza kriminalen ikerketa judizialari bidea irekitzea dakar.

Bartzelonan hasitako bide berbera jarraitu du Durangok eta 1977ko Espainiako amnistiaren legeari izkin eginez, Aviazio Legionariako 46 pilotu italiarren kontra jarri du kereila amnistia legeak ez delako eragiten.

Kereilaren arabera, italiarrek 281 bonba jaurti zituzten erasoaldian, 14.840 kilo lehergailurekin. Bonbek 321 eraikini eragin zieten, eta haietako 70 eraitsi egin behar izan zituzten. Kalkulatu dute horrek 4,2 milioi euroko gastua eragin zuela. Durangon gerra-fronterik ez zegoela ere jasotzen du kereilak eta bonbardaketen helburu nagusia herritarren artean izua hedatzea zela. Zalantzarik gabe, ekintza hori Gizateriaren Aurkako Krimena izan zen, preskribitzen ez denetakoa.

Salaketa aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izan da Gerediaga Elkartek egindako ikerketa lana. Hiru ekarpen nagusi egin dizkio ikerketak auzi-jartzeari: bonbardaketetan parte hartu zuten pilotuen identifikazioa, planifikatu zutenen identifikazioa eta Durangoko bonbardaketak helburu militarrekin ez zirela egin frogatzen duen lekukotza.

1937ko martxoaren 31ko Batzordea Durangoko udalbatzar-rrak, alkateak eta zinegotziek, Durangoko alderdi politikoek eta Durangoko hainbat herri-elkartek osatzen dute: Gerediaga Elkartea, Ongi Etorri Errefuxiatuak, Kriskitin Dantza Taldea, Ongi Etorri Kovanê, Aranzadi Zientzia Elkartea eta Durango 1936 Kultur Elkartea. Batzorde zabala da nahi duenak nahi duenean parte hartzeko.



📷 Kereilaren aurkezpena Durangon. 2017ko uztaila.